

Aikor!

txorierriko aldizkaria



Aitor Coterón, aktorea:
“Orokorrean ez daukat lotsarik eta nire beharra egiterakoan gutxiago”

ZAMUDIOKO JAIK GORA SAN MARTIN !!!

PARTE HARTU GURE JAIETAN

JAIK EUSKARAZ BIZI!!!



ET EXCLUSIVO
TXORI-ERRI



Distributorea: Etxeola, S.L. - Zamudio (48.400.178.10)

ZAMUDIO (48.400.178.10)

BANCO
Guipuzcoano

Luzerengoa lantzen

ZAMUDIO
DERIO

900 66 44 66 - www.bancogui.es



CLINICA DENTAL
GANDIAGA
CLINICA DENTAL

Elizabete Gandiaga Claramonte
odontóloga

-Calentamiento ambigoro
-Dentadura fija
-Extracciones

Tramutagorri, 2 - 1.º planta (junto a Leizendakari Agintze plaza)
48170 ZAMUDIO

Teléfono: 94 668 62 30 - 33

E-mail: klamutagorri@guipuzcoano.es

GASTRONOMIA
BASKA



1993 20 años
afirma


Cocineros Artesanos

Polígono Torrelaragalli P7-E

48170 Zamudio


☎ 944 523 600 ☎ 944 523 942

www.gastronomiabaska.com



KOLEKTIBITATEI ZERBITZUAK
IKASTETXOAK
LANTEGIAK
BOSQUEK
HOSPITALEAK

BANKETE ZERBITZUA
HERRI BAZKARIAK
LUNCH-IAK
ESKOTZAK



TOLDOS
TXORI-ERRI

Torreanagorri, 1ed. P.º
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 662 17 68
Fax: 94 662 07 68
Guayfandakari unibertsitate



- Lona Industrialeak
- Sareak
- Eguzki-otzak
- Alokatzeko lona



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Menthaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Bihotz Bakartien
klubeko kidea, Oihana Astobieta.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Puri Martinez, Lurdes
Lasuen, Jasone Astola, Asier
Oruetxebarria, Arrekikili, Juan Luis
Goikoetxea, Juan Luis Barrenetxea,
Lurdes Prudencio, Naiara Sanchez,
Udane Goikoetxea, Euskadi
Fundazioa, Txaro Martin, Iosu
Ziordia, Fernando Olabarrieta,
Arantzazu Mendiguren, Saionara eta
Maripi, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiarza

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Euskara Institutua



Euskara Institutua
Euskara Institutua
Euskara Institutua

diruz lagundutako aldizkaria



22 Gotzon Lobera



14 Koldo Elorrieta



26 Larrabetzuko liburutegia



13 Zamudioko jaiak



24 Bihotz bakartien kluba



12 Txakolin eguna

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
10Gazteen txokoa 11Gaztea eta... Koldo Elorrieta 12Txakolin
eguna 13Zamudioko jaiak 18Aitor Coteron 22Gurean izan da
Gotzon Lobera 24Bihotz Bakartien Kluba 26Larrabetzuko
liburutegia 27Txorierriko korredorea 28Baserri mundua
29Teknologia 30Txorierri ezagutu 31Txorierriarrak munduan
32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro _____ beste kopuru bat _____

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Herri elkarte eta batzordeak



Jose Luis Barrenetxea
(LHko irakaslea)

Elkarteen inguruan **hiru lan maila** agertzen jakuz: lan politiko globala, alderdiak bideratzen dabena; lan sozial sektoriala, giza mugimenduak egiten dabena, eta lan herritar konkretua, herri elkarte/batzordeen bidez betetzen dana. Idazki honek hirugarren maila horren beharra azpimarratu gura dau.

Izate eta funtzio publikodun elkarteak, batez bere ume-entzat, gazteentzat eta hirugarren adinekoentzat, euren beharrezinei erantzuteko, erakundeen babesagaz eratzen diranak. Barrura eta kanpora begira ondoko printzipioak defendatzen dabez:

Idearioa:
Independentzia.
Herri elkarte sinpatia, afinitate edo sintonia ideologiko konkretuetatik kanpo egotea. *Neutraltasuna.* Giza-politika gaiei buruzko adierazpenak distantzia eta ez-alineamenduan oinarritzea. *Aniztasuna.* Elkarlana eta harremanak, pertsona edo talde ideologiko guztiakaz era bardinean lantzea. **Gestioa** autonomia, **lokala** publikoa eta **finantziarioa** bi aldeetakoak izatea.

Batzuetan, **aginte ideologikoek** (udala, eleiza, alderdiak, mugimenduak...) herri elkarteen izaera kolonizatzen dabela esaten da. Kolonizazio hau (gertatzen bada), elkarte/batzordeen ondoko hiru faktoreetan manifestatzen da:

Pertsonetan: arduradunen kokapen eta egoera giza-ideologikoetan. **Gestioetan:** Egiten diren ekintza, kontratazio eta kanpo harremanetan. **Irudietan:** Ekintzen eszenografia, lokal dekorazioak, idazki eta publizitate estiloetan.

Faktore guztien ondorioz, elkarteak bere **ate anbientalak** sortzen ditu. Batzuk parte hartzera eta beste batzuk kanpoan gelditzera animatuko dabezanak. Elkarte publikoak ezin dabe ate anbientalik izan. Pertsonak direnak dira eta, esaten dan moduan, *“no hay más cera que la que arde”*, baina, hitzak, gestioak eta irudiak, ideologia guztietakoak, gustura sentitzeko modukoak izan behar dira.

Udalek bizikidetzak eskolak moduan ulertu behar dabez elkarte eta batzordeak. Udalen zeregin garrantzitsuenetakoa, elkarteei laguntza emotea, bizirik mantentzea eta herritarren gogo partehartzaileari ateak zabaltzea izango litzateke.

Udalak dira —eurek bakarrik ez baina— arduradun nagusiak, erabaki egokiak hartu behar dabezanak, alderdien arteko konfrontazio politikoa kultura, kirol edo jai eremuetara ez zabaltzeko. Eurei dagokie, guztioi dagokigu, elkarte eta batzorde publikoak *ekosistema babestuen* moduan defendatzea, beste maila batzuetako konfrontazioaren aurrean, soluzio osoa izan ez arren, osoaren zatitxo bat izan leitekeezelako.

Badator, badator!!!



Lurdes Prudencio,
(Zorritzketan, Lezamako Euskera Alkarteko Koordinadorea)

Gitxi falta da. Motorrak berotzen hasi gara. Ia-ia prest dago omenaldia: liburuak, mahainguruak, musika, elizkizunak, hitzaldiak, batzarrak, bertso-saioak, herri-bazkaria... Guzti horren barri zehatza aurtengo Durangoko Azokan eta komunikabideen bitartez izango dozue. Eta, sasoiari gara oraindino, barriro be omenaldian parte hartzeko eskaria zabaltzen deusuegu Txorierriko euskera-talde, kultur-talde eta erakunde guztioi. Mikel euskaldun guztiona da. Mikelek merezidu eban eta merezidu dau!

Hori esanda, ez gatoz orain gauza barririk esatera, ideia bat azpimarratzera eta leihatila honetatik anplifikatzera baino: bete-betea uste dogu ospakizuna oso inportantea izango dala, txorierritarrontzat orokorrean eta lezamarrontzat berezian. Omenaldiaren helburuen artean idatzita dago: batetik, Mikel Zarate, euskal idazlea, herriko gizona, eliz-gizona, euskaltzalea gogoratu, eta bestetik, Mikelen izena eta izana (zintzotasuna, euskaltzaleasuna, lan oparoa, handitasuna) “erabiliz” eta “aprobetxatuz”, Lezaman eta Txorierrin euskera erabili, indartu eta prestijiatu. Ia, ba, helburuok danon artean betetzen doguzan!

Mikel Zarate, Goian Bego! Baina, datorrela geure burura eta bihotzera luzarorako!

KIMA
Landaak
LANDARE APAINGARRIA
Geltokia 25 • Tel. 94 455 51 01 • Fax: 94 455 41 77
40100 ZAZZAR/LEZAMA

S.A.T. LECV
Sociedad Agraria de Transformación de Lezama
C/Alameda, 10 • 48100 Lezama (Bizkaia)
Tel. 94 455 41 77 • Fax: 94 455 41 77
www.sat-lezama.com

GARRAJOLARIA 
Miguel Angel Idoia
ANDRA MARL 10
IARRARITZULI
Tlf: 94 455 60 20

Erasoen aurrean elkartasuna eta babesa

Kulturaren alde lan egitea ez da inon ere zeregin erraza, gaur eguneko gizartearen ekonomia eta bere menpe dagoen politika nagusi baitira. Baina euskal kulturaren alde lan egitea are zailagoa da oraindik ere. Izan ere, berez kulturak dauzkan arazoei beste kultura menperatzaile baten oztopoak, trabak eta erasoak gehitzen badizkiegu, erraz ulertuko dugu gure kulturaren proiektuak aurrera ateratzeak zelako meritua daukan.

Eraso-dinamika honen barruan, hain zuzen ere, kokatu behar ditugu eguneroko eraso txikiak, duela zortzi hilabetezko Egunkariaren itxiera eta baita urriaren 16an euskal kulturak jasanda-

ko eraso lazgarria. Euskararen alde diharduten 8 lagun eta euren abokatua atxilotuak izan ziren, oraingoan, iruzur aitzakiapean. Gure kulturaren alde lanean dabiltzan hainbat enpresa eta erakunde susmopean jarri dituzte berriro ere. Ez da kontu berria. Erasoaren eten-gabea eta planifikatua da: euskaldun oro susmagarri bihurtu eta komeni zaienean atxilotu, guk egindako lana txikitu eta birrindu eta, azkenik, gran-hermanoren "kultura" berton inposatu. Eta ez da aditua izan behar antzemateko horrela segitzeko asmoa dutela.

Enpresa espainiar "eredugarrienei" legea berdin ezarriko baliete, gehienak itxita leudeke. Baina dagoe-

neko euskal gizartearen gehiengoak konturatu da euskaldunokin ez dutela berdin jokatzeko. Geurea geuk aterako beharko dugula aurrera gero eta nabarmenagoa dugu. Eta gure egitekoa ere ez da kontu berria: lanean jarraitu, gure arteko elkartasuna handitu, urteetan sortutako desberdintasunak gaitzitu eta inoiz baino proiektu gehiago bultzatu, euskara maitatu eta mintzatu eta daukaguna eta aurrerantzean egingo duguna defendatzeko estrategia komunak antolatu. Donostiako larunbateko manifestazioa ildo horretan emandako urrats bat gehiago da. Oinarriak jarrita daude. Orain bidea egin dezagun.

Gutuna

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunaren atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikori-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Oinez 2003. Autobus bidaia tristea

Bederatzietan irten ginen Deriotik Irunberrira joateko asmoz, Nafarroa Oinez-era. Tximintx euskara taldeak eta Udalak antolatutako autobusa beterik zihoan. Agurainetik pasatzean, albiste txarra gutxi gorabehera

bagenekien. Lagun baten gurasoak Irunberrin zeuden eta egoera nahiko tristea eta gogorra zela abisatu ziguten telefonoz. Nafarroa Oinez bertan behera utzi zela esan ziguten, baina guk sinestu ez.

Handik gutxira txoferrak beste dei bat jaso zuen, bere lankide bat N-240 errepi-dea guztiz kolapsatuta zegoela eta guardia zibilek atzera bueltatzeko agindua ematen zutela, ezin zela jarraitu. Egia esan ez genuen sinestu, gainera guardia zibilek esanda... Iruñe ostean gelditzea eta batzar bat egitea erabaki genuen. Aurrera jarraitzea zen erabakia, baina Euskadi Irratian Arangoiti ikastolako antolatzaile batek atzera bueltatzeko eskaera egin zuen eta horrekin batera egoera zein zen azaldu ere bai. Itzulera oso tristea izan zen, batez ere gurasoak eta ume guztiak negarrez ari zirela jakitean.

Iruñean egin genuen geldiunea. Autobusean Arangoiti ikastolaren alde dirua batzea besterik ez zitzaigun falta.

Eider Palmou



Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintzako Azoka Sondikan

Azaroaren 9an, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintzako VII. Azoka egingo da Sondikan. Azokagunea geltoki ondoko aparkalekuan eta haren inguruan kokatuko da. Azoka goizeko 10etatik arrastiko 2,30ak arte egongo da irekita, eta bitarte horretan hainbat ekitaldi izango dira, Sondikako Udalak antolatuta.

Goizeko 11etan, txakolinaren eta Idiazabal gaztaren dastatzea izango da. Osteon, 12:00ak aldera, Gorantzaileak taldeak dantza saio bat eskainiko du. Ordubete geroago, artzain txakurren erakustaldia izango da. Beste alde batek, eguerdiko 12etatik arrastiko 2ak bitartean umeentzako ekitaldiak prestatu dira, besteak beste, poniak eta herri kirolak. Azkenik, aipatu beharra dago txistulariak eta dultzaineroak goiz osoan ibiliko direla hara eta hona.



Garraiorako eta Aisialdirako Bizikletaren Jaia Derion

Urriaren 11n, 500 lagun inguru bildu ziren Derioko Seminario ondoan, Garraiorako eta Aisialdirako Bizikletaren Jaia ospatzeko. Haien artean egon ziren Iban Mayo eta Haimar Zubeldia Euskalteleko txirrindulariak, Juan Mari Atutxa Legebiltzarreko presidentea eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria. Halaber, Euskaltelen filiala den Orbea-Olarra txirrindulariek ere hartu zuten parte ekitaldian.

Aurtengoa Bizikletaren Jaiaren bigarren edizioa da eta ezin da ukatu arrakastatsua izan zela, batez ere partehartzaileen kopuru handia kontuan harturik.

Arduradunek hiru ibilbide antolatu zituzten. Lehenengoa aukeratu zuten txirrindulariek 38 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten errepidetik. Bigarrena egin zutenek, berriz, 14 kilometro mendian zehar. Umeentzako ibilbidea 8 kilometrokoa izan zen, errepidez.

Egun zoragarria, benetan, txirrinduzale guztientzat. Eguraldia ere lagun izan zuten. Baina umeentzat, batez ere, egun ahaztezina izan zen, bizikletaz euren idoloekin ibiltzeko aukera izan zuten eta.



Argazkia: Euskadi Fundazioa

Gaizka gogoan



Gaizka uztailen istripuz hil zen 5 urteko lezamarra da. Bere ikaskideek marrazki hauen bidez gogoratu nahi izan dute.

Oteiza eskultoreari buruzko hitzaldia izan da Sondikan

Urriaren 10ean, Elias Amezaga idazleak Jorge Oteizari buruzko hitzaldia eman zuen Sondikan, Zerurena jatetxeak antolatuta. Jatetxera hogeitaz inguru batu ziren. Entzuleen artean egon ziren Pedro García Barragán kazetaria, Joseba Gotzon abeslaria, Nacho de Vicente eskultorea, Juan López de Ael artista eta Sondikako kultura arloko zinegotzia.

Elias Amezagak ekainean aurkeztu zuen *Jorge Oteiza*. *Ahora tengo que irme* liburua, eta bertan, besteak beste, eskultoreak idatzitako gutun eta olerki asko bilduz dira.

Hizlariak 1948an ezagutu zuen Oteiza, eta harrezkero harreman estua izan zuen harekin. Hitzaldian Orioko artis-

taren bizitzaren xehetasunak eman zituen eta haurtzaroak markatutako umetzat aurkeztu zuen. Azaldu zuenez, bizitza osoan saiatu zen nortasun euskalduna berreskuratzen. Aipatu zuen gizon odolberoak zela, ulertu gabea, polemikoa, oldarkorra eta iraultzailea, baita sabindarra ere. Oteizak Gipuzkoa gorrotatzen zuen eta Bilbo, osterak, maite zuen. Duda barik, izakera gogorreko gizona zen Oriokoa, baina Eliasek beste Jorge bat ere aurkeztu zuen: eskuzabala, lagunak laguna eta senar jeloskorra. Bere izakerearen beste alderdi hori erakustearren kontatu zuen, biok Nafarroara joan ziren batean, guardia zibilek geldiarazi zituztela, eta bakarrik falta izan zitzaizola erreberentziak egiten hastea, nahiz eta barrutik sutan egon.



Txarriboda Derion

Tximintx euskara taldeak Txarriboda bazkaria antolatu du azaroaren 14rako, Derioko San Isidro jatetxean. Porrusalda, odolostea, giharra, etxeko postrea eta kafea izango dira 10 euroren truke. Bazkideak ez direnek 12 euro ordaindu beharko dute. Gainera, sorpresaren bat ere egongo da eta Tximintxek urteko plangintza eta bazkide kanpaina berria aurkeztuko ditu bertan. Bazkari-txartelak Mafre aseguroan (Ester) edo Txepetxa euskaltegian (Belen) eskura daitezke. Informazio gehiago 635753595 telefono zenbakian edota tximintx@euskalerria.org posta elektronikoan. On egin!

Txorierriko VI. ipuin lehiaketa

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Txorierriko VI. ipuin lehiaketa antolatu du. Lanak euskaraz izango dira. Dagokien kategoriaren arabera, nahi duten guztiek har dezakete parte. Bost kategorია hauek bereizi dira: A, 7 urtera bitartekoentzat; B, 8 eta 9 urtekoentzat; C, 10 eta 11 urtekoentzat; D, 12tik 15 urtera bitartekoentzat, eta, azkenik, E, 16 urte-tik gorakoentzat.

Gaia librea izango da. Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute eta ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango. Lanen ebaluaketan, besteak beste, imajinarioa, sormena eta presentazioa hartuko dira kontuan. Ipuinak gutunazal handi batean sartuta aurkeztu behar dira eta kanpoko aldean kategoría eta bakoitzari dagokion udalerría baino ez dira idatziko. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutunazal txikiaren barruan izen-deiturak, helbidea, adina eta telefonoa jarriko dira. Lanak Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira. Azken eguna 2003ko azaroaren 28a izango da. Kategoría bakoitzean sari bi eta akzesit bi emango dira. Saritutako lan guztiak Txorierriko Mankomunitatearen esku geratuko dira, eta nahi duen erabilera emateko eskubidea edukiko du. Gainontzeko lanak utzitako lekuetan batu ahal izango dira 2004ko urtarriean. Sari banaketarako eguna eta lekua aldeztu aurretik jakinaraziko dira.

ARTIZAR
BARRIOA, J. IZURDOZ, 10
48940 SONDIKAN (Bizkaia)

JOSE ARRIOLA, 1
TEL: 94 540 01 40

FMC Forest, S.L.
Zentraldeko Faktoria
Donostia-Donibaitia, 100
48100 LEZAMA (Bizkaia)
Tel: 945 421 11 40

FMC forest

OLANDO S.L.
ARROZTEGIA

- Gutako albariako albariako, neurria egina.
- Gutako albariako albariako, neurria egina.
- Loma-arrak.
- Albariako eta albariako.
- Tortako albariako.

OLANDO S.L.
C/ ALFONSO XIII, 10
48100 LEZAMA (Bizkaia)
Tel: 94 540 01 40

ILARRA BARRIOA
ILARRA BARRIOA
ILARRA BARRIOA BARRIOA
ILARRA BARRIOA BARRIOA
ILARRA BARRIOA BARRIOA

ILARRA BARRIOA BARRIOA, 10
48100 LEZAMA (Bizkaia)

LAPIKO S.L.
LAPIKO S.L.
LAPIKO S.L.
LAPIKO S.L.

LAPIKO S.L.
C/ ALFONSO XIII, 10
48100 LEZAMA (Bizkaia)

Gabonetako postalen lehiaketa

Sondikan eta Lezaman

Larrabetzuko futbol zelai berria azaroan ireki gura dute

Zamudioko errege bide zaharra konpontzeko lanak hasi dira

Derioko ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik

Hasi berriak badaude ere, Derioko Udalak antolatutako ikastaroetan izen emateko aukera dago oraindik. Horrela, nahi duena garapen pertsonalari buruzko ikastaroa egiteko garaiz dabil. Hainbat gai, autoestimazioa eta arazo konponketa esate baterako, jorratuko dira bertan. Bi talde, bata goizeko 10etatik 12etara eta bestea arratsaldeko 6etatik 8etara, ostegunetan, osatu dira. Halaber, lehen mailako zainketei buruzko ikastaroa ere astearteetan, arratsaldeko 6etatik 8etara, dago. Biak Kultur Aretoan ematen dira.

Beste alde batetik, Gaztelekuan, etxeko autonomiaren inguruko ikastaroa dago astelehenetan arratsaldeko 7etatik 9etara. Aikor!rek kurtso honetan apuntatuta daudenei galdetu eta halako ikastaroren bat egitea merezi duela erantzun digute. Izan ere, etxean gerta daitezkeen arazo tekni-

koei aurre egiteko hainbat gauza ikasiko dituzte: iturgintza, elektrizitatea...

Ikastaro guztiak 24 ordukoak dira eta Derioko Udalaren Emakume arloak, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduta, antolatu ditu. Kurtsoek 6 euro balio dute, baina klaseen %80ra joanez gero dirua itzuli egingo da.



Transgenikoei buruzko hitzaldia Lezaman

Azaroaren 18an, arratsaldeko 6etan, elikagai transgenikoei buruzko hitzaldia izango da Lezamako Kultur Aretoan. Hitzaldia Mario Fernandezek medikuak emango du. Fernandezek Arreta Sanitarioa Inguruari izeneko masterra egin du eta Osasun Publikoaren Aldeko Elkartearen kidea da. Manipulazio genetikoaren zertan datzan, elikagai transgenikoen arriskuak eta beste gai batzuk jorratuko dira hitzaldian.

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa Lezaman

Azaroaren 25ean eta abenduaren 2an eta 9an, martitzenetan, Gabonetako sukaldaritza ikastaroa emango da Lezaman. Herrian errolatuek 17 euro oradaindu beharko dute eta erroldatu gebeek, berriz, 23 euro. Ikastaroan erabiliko diren osagaiak prezioaren barnean daude. Ikastaroa egiteko gutxienez 8 eta gehienez 12 lagun behar dira. Azaroaren 3tik 17ra arte liburutegian eman behar da izena.

“Txotxongiloen artea” erakusketa Zamudion

Urriaren 15etik 30era bitartean, Txotxongiloen artea erakusketa dago Zamudioko liburutegian, Corrado Masacci artista italiarrak prestatuta.

Erakusketa honetan, ibilbide bat egiten da txotxongiloen artearen historiatik, eta txotxongiloen antzinako tradizioaren berri ematen zaie umeei zein helduei, hasierahasieratik orain arte. Bertan, Java, Bali eta Rajastango txotxongiloak eta Italiako tradizionak daude ikusgai, eta, haiekin batera, baita gaur egungoak ere.

Erakusketaren helburua da gazteen interesa piztu eta eurek prestatzea euren jostailua. Artistak nahi du ikuslea eta bisitaria hurbil dadin eskuz eta hariz egindako txotxongiloen mundu magikora. Erakusketak bost atal hauek ditu: Ekialdeko txotxongiloak, Italiako txotxongiloak, artearen komedia, gaur egungo txotxongiloak eta igelen zirkoa.

Bilduma honetan erakusten diren pieza gehienak Corrado Masaccik sortu ditu mundu honetan eginiko 16 urteetan.



DERIO FRUTADENDA

Sellube, 8
Telefono: 885 77 12 62
DERIO

J. ELORRIAGA

Plaza de San Francisco, 1
Telefono: 91 400 88 11
1. planta

TXAKOLINA

1. planta

Condominio 17
1. planta

1. planta

1. planta

TORREKO TXAKOLINA

1. planta

1. planta

1. planta

1. planta

Danimarkan zita

Ezustean, baina, urte bi igaro dira Danimarkako lurak utzi nituenetik. Zenbat egun paradisu txiki horretan galdurik, zenbat sentimendu ñabardura ikerturik, zenbat istorio eta abentura bizirik... elur malutak bailiren bildu ditut guztiak, eta ez dakit orain eskuetan dudan elur-sorta hau nola jaurti. Oroitzapenak dira jadanik behialako desirak.

Ia itzalian izan nuen Danimarkarekin lehen enkontrua. Halako urduritasun eta emozio desitxuratu batekin heldu ginen Erasmus programako estudiantetarako Arhus hirira. Eta ondorengo egunetan ere ohi baino agudoago eta ikaratiago ibili ginen; norbere erresidentzia eta ilusioak non kokatu behar genituen zain. Aitzakiak ezabatzen direneko ordua izaten da hori, eta inoiz baino biluziago sumatzen da guztia.

Nire erresidentzia Arhus-en ondoko auzoan aurkitu nuen, justu-justu Margarita erreginareneko udako jauregitik metro gutxira. Baina Margarita ez zen sekula ingurutik agertzen, eta ideia hau neure kontsolamendu propiorako baino ez nuen erabiltzen. Hasieran munduaren doi-doi bestaldean abandonaturik sentitzen zara; Erasmuseko beste lagunak hirian baitziren eta ni berriz, guztiak daniarrak zireneko izkina hartan. Abstrakzio itxura larria hartzen du beti lehen inpresioak.

“Hasieran munduaren doi-doi bestaldean abandonaturik sentitzen zara; Erasmuseko beste lagunak hirian baitziren eta ni berriz, guztiak daniarrak zireneko izkina hartan”

Abentura honetan, posible da lagunak egitea beste edozer baino garrantzitsua goa izatea, baina posibleagoa da oraindik, lagun koadrila horiek familia ttipiak bihurtu eta berehalako bizimodu horretan oso-osoa gailentzea; italiarrak, belgikarrak, andaluziarrak, euskaldunak... guztiak dira hasierako hilabeteetan nahitaezko unitate irmoak. Xarma ezti eta malenkoniatsu baten erritmoan gauzatzen joaten dira orduan Erasmus estudiantetaren konpromisoak; jaiak, bidaiak, lagunak, bisitak...



Danimarkako argazki panoramikoa

Baina, hutsala da bizitza Danimarkara aurrez aurre eginiko begirada baten aldamenean, eta herrialdea bera; bere hizkuntzarekiko errespetu eta defentsa sendoak, ohiturak, herritarren apaltasunak, ingururekiko ardura zuzentasunak, ikasteko errazten direneko laguntzak, beste gauza baino nabarmenagoa eta maitagarriagoa iruditzen hasi zitzaidan bat-batean. Konturatu nintzen, orduan, geure deskuiduaz. Norbere herrialdearen bizimodua Erasmuseko karpetatxoan, beste nortasun agiri eta matrikula orriekin batera, eramaten dugu zintzilik, gogoan, eta erraz asko ahazten dugu nortzuk diren bisitariak. Hala ere, hemen urruti dagoenak badaki aterpe goxo izaten; norbere ilusio eta desioak ozenagotzen badaki. Eguraldiaren hotzikarak alderatuta, egunero bizikletan gora eta behera ibiltzeak, etxera heldu eta lagunak zain izateak, elur artean patinatzen ikasteak, hizkuntzaren erresistentzia xahutzeak, eta batez ere, autonomia propioz aritzeak egiten du esperientzia hau ahaztezina.

Jutlandia penintsula eta bere 406 irlek osatzen dute Danimarka, eta Carlsberg garagardoaz, Shakespeareren Hamlet, Lego, edo brontzezko itsas lamiaz gain,

“Carlsberg garagardoaz, Shakespeareren Hamlet, Lego, edo brontzezko itsas lamiaz gain, bada, argi asko, zer ikasi bikingoen herrialdean”

bada, argi asko, zer ikasi bikingoen herrialdean. Subjektibotasun osoz ari naiz azaltzen, beharbada ideia jauzi nahasi batean, baina hau da, oinarrian, bueltan gelditzen dena: itzultzeko gogo.

Mundua zabalegia da, bataren edo bestearen bizipenaz arduratzeko. Eta alegrantziak pentsatzen dut, neurea propioa izan dudala halako tarte txiki horretan. Eta esperoan jarraitzen dut orduetik, noizik gabe, baina Danimarkan da zita.

Testua eta argazkia: Nahiara Sanchez

Koldo Elorrieta Landaluze * Kirol arduraduna

"Entrenatzeko gaitzenak neska nagusiak dira"

Testua eta argazkia: J. A. Mentxaka

Hamasei urte zituela sartu zen Derioko Eskaut taldean begirale moduan, eta bertan 12 bat urte egin zituen. Gero kirol arloan sartu zen. Hainbat kirol praktikatu ditu eta asko erakutsi ere. Soin Hezkuntzan lizentziatua. Aisialdi begirale, zuzendari, animatzaile soziokultural eta halako beste titulu batzuen jabe. Berak dioenez, derrigorrezkoak ez dira, baina komenigarriak bai. Derioko Institutuko kirol koordinazioa, nesken futbito taldeak eta Sondika eta Derioko esku pilota taldeak bere ardura pean daude gaur egun.

Zein da praktikatzea gustatzen zaizun kirola?

Denetarik egin dut: futbola, futbitoa, boleibola, eskubaloia, esku pilota, judoa hainbat urtetan, arraunean... Gustukoena esku pilota eta judoa aukeratuko nituzke.

Erakusteko orduan zein kirol duzu gustuko?

Esku pilotan gustura nabil, baina taldeak asko markatzen du, segun eta zer-nolako taldea daukazu askozaz errazago bihurtzen da klaseak ematea. Dena dela, kirol bat hartu beharko banu, esku pilota aukeratuko nuke.

Eta ikusle moduan?

Futbola, asko ikusi ez arren. Esku pilota askozaz gehiago ikusten dut eta arrauna be, kirol gogorra da eta ikusten dudana bakoitzean gogoratu egiten dut.

Zein adinetakoakaz sentitzen zara eroso?

Neuk 5-18 urte tartea ematen dut. Esku pilotan, batez ere, 10-13 urterekin, indarra, moduak hartzen hasten dira eta polita da beraiekin jolastea edo ikustea



ere. Txikiekin oso ondo pasatzen duzu, hori bai, alkalinak behar dituzu jarraitzeko.

Neskei edo mutilei ematerakoan ezberdintasunik badago?

Bai, handia, oso handia. Mutilak dira bortitzak, gogorak, indarra daukate. Neskatoak dira askozaz geldoagoak eramateko, hitz egin eta hitz egin, erabat ezberdina da beraien portaera. Mutilekin zarata pare bat egin eta badaukazu jarrita, neskekin ez. Gainera extraeskolarrak direnez lasaiago datoz eta zu isildu behar bazaituzte, isildu egiten zaituzte inongo lotsa barik. Gaitzena, neskak eta nagusiak dira.

Zein kirol mota praktikatzen da gazteen artean?

Umeek futbola eta orain esku pilota ikusi eta hori praktikatzen dute. Hau kenduta oso gauza gutxi. Umeei beste kirol batzuk ere badaudela erakutsi behar zaie. Ezagutuko balute, aukeratuko lukete. Horretan gabiltza. Institutuan egiten den eskaintza oso zabala da. 13 kirol ezberdin eskaintzen dira. Hortik saskibaloia, futbitoa neskak, igeriketa neska taldea, badminton... aterako dira. Batzuk ekintza puntua-

lak dira: hipika, surfa, eskia, arrauna, txirrindularitza, atletismoa... Batzuk apuntatzen dira eta egiten dute.

Bultzatzen da kirola gazteen artean?

Txorierri azpiegitura egon badago, baina erabiltzeko beste pentsamolde bat behar da, ohitura alokairuan jartzea da, eta pentsatu behar da herriko umeak eta gazteak erabiltzeko eginda daudela eta horretarako erraztu behar da bidea. Arazoa 12-18 urte tartean dago eta batez ere nesken artean. Institutura datozenean kirola egiteko erreferentzia eskolan galtzen dute. Hau ez gertatzeko plan bat egin genuen iaz Txorierri osorako, baina printzipioz bertan behera gelditu da. Batzar bat eskatzen genuen Mankomunitateko arduradunekin, eta oraindik ez dugu erantzunik izan. Betikoa.

Baloratzen da zuen lana?

Bertatik bizitzea gaitz dago. Ez dago ohitura onik, pentsakizun orokorra da pertsona bat datorrela beraiekin jolastera, denbora pasa, ez dago ondo antolatuta, ekinean gabiltza, gauzak antolatzen, baina oraindik asko falta da besteek gure lana balioesteko.

Arantza Aurrekoetxea, Kultura zinegotzia eta Jai batzordeko kidea

“Ahalik eta zamudioztar gehienek jaietan parte hartzea gura dugu”

Aurtengo San Martin jaietarako egitarau zabala prestatu dute Zamudioko Udalak eta Jai batzordeak. Jai ekitaldiok azaroaren 7an hasi eta 12an amaituko dira. Arantza Aurrekoetxea Kultura zinegotziak haien berri eman digu.

Beno, Arantza, zer aurkituko dugu aurtengo Zamudioko jaietan?

Zapatu gauean oso ikuskizun erakargarria izango badugu ere, gainontzeko egunetan herriko jendeari zuzendutako hainbat ekintza antolatu ditugu. Izan ere, ahalik eta zamudioztar gehienek jaietan parte hartzea gura dugu. Horretarako, kalejira eta perretxiko dastatzea izango ditugu azaroaren 7an, barikuan. Ostean, Iparraldeko Patxi 1, 2, 3 taldearekin dantza egingo dugu. Zapatuan, umeentzako egunaz gainera, herri bazkaria eta koadriren jokoak egingo dira, baita dantza saioa ere...

Eta zein da ekintza erakargarri hori?

Su Ta Gar musika taldearen kontzertua. Alboko herrietako gazteria Zamudiora bilduko dela uste dugu...

Nobedaderik aurtengo jaietan?

Bai. Udalaren kultura agendatik ekintza batzuk hartu eta jaietan kokatu egin ditugu. Horrela, umeentzako txotxongiloak izango dira zapatuan, eta Aukeran taldeak Sutargi ikuskizuna aurkeztuko digu domekan. Hau udal kiroldegian arrastiko 7etan izango da. Horretaz aparte, jaiei itxura emateko asmoa daukagu, hau da, bande-

“Udalaren kultura agendatik ekintza batzuk hartu eta jaietan kokatu egin ditugu”

rilak jartzea, musikak eten gabe jo dezala kioskoan...

Nola antolatuko da jai-gunea?

Ekitaldi gehienak plazan izango dira. Bertan komisioren txosna jarriko da. Besteak elizaren ondoko aparkalekuan egongo dira. Beste ekintza batzuk kiroldegian eta Nagusien etxean egingo dira, esate baterako. Musika, gutxi gorabehera, goizeko 4ak arte egongo da... Beno, beranduago izanez gero, baxuago jarri beharko da.

Beste alde batetik, zemendiaren 2an ortuari eta ganadu azoka izango dugu Zamudion...

Jendetza biltzen da azokara, eta detale asko zaindu behar dira. Illo horretan, jaietan nahiz azokan jende askorentzako lana dago. Azokaren bidez, solotik edo



baserritik bizi denari bere produktuak zuzenean saltzeko aukera ematen zaio. Gainera, baserria bera ere indartzen saiatzen gara. Gure azoka xumea izango da, baina jatorra ere bai, eta oraindik jatorragoa izan behar duela uste dugu.

Ortuari eta ganaduko XIX. azoka

Azaroaren 2an, igandean, ortuari eta ganadu azoka izango da Zamudion, Udalak, BBKren laguntzarekin, antolatuta. Aurtengo, XIX. edizioa beteko da eta, aurrekoetan bezala, herrira jendetza haundia biltzea espero dute antolatzaileek.

Horrela, bada, 78 ekoizle euren produktuak aurkeztuko dituzte goiz osoan zehar. Salbuespenak salbuespen, gehienak Bizkaikoak izango dira. Horretara, bada, aipatzekoa da Udalak eta BBK bitartekorik ez ekartzeko ahaleginak egin dituztela.

Lorak, frutak, barazkiak eta esku-lanak ikusi eta erosteko aukera izango dugu Zamudioko azokan. Era

berean, taloa, txorizoa, ezti eta pastelak dastatu ahal izango ditugu. Gainera, txakolin, sagardo eta barazki lehiaketak, besteak beste, egongo dira.

Beste alde batetik, ganadu erakusketak eta lehiaketak ere egingo dira urtero lez. Bertan, 105 bat buru izango dira: txaroles, limusin, frisiar, esne behiak eta oke-latakoak euren artean.



ZAMUDIOKO JAIK GORA SAN MARTIN !!!



**Bocateria
Gatalekoa
Pizzeria**

ETXEZ ETXERO ZERBITZUA IA TXORRIERI OROAN
ZAMUDIO TEL.: 94 452 11 42



Super BM

**JOSEERRA
NURIA
IÑAKI**

Pago-katea, 5
48170 ZAMUDIO
Tel.: 94 452 10 46

Ta Super en España



Farmacia

Jose Maria Quijano

LEHENDAKARI LEIZAOLA, 1 - TTNOA.: 94 452 01 59
40170 ZAMUDIO - BIZKAIA

**CAFETERIA
GENTURION**

*Especialitateak:
gozari eta pintxoak*

Lehendakari Leizaola Plaza, 8
Telefonoa 94 452 10 49 - Zamudio



HOTELK HILAKOZKUMAK

ITZISA

Barra Superkaleak

Talleri kalea, 5
Tel.: 94 452 20 30

40100 - ZAMUDIO



**Garmendia
ardoak**

Plaza pol., 1-7H
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 454 00 49

Restaurante

SAN MARTINETAN TXARRIBODAK

Restaurante

JENK-JETETXER

Iguneko menuak
Menu bereziak
Jasontxoak, hatainak eta ezkontzak

Torrelarragoki Ind., 17
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)

Telefonoa 94 452 45 26
Tel/Faxa 94 452 02 42

**MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

*Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak*

Torrelarragoki Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel/Fax: 94 608 01 41 - 2



**Peluqueria
Ana Belen**

estetika - solarizatu

Arrieta kalea, 4 - bide
Tel.: 94 452 10 10
www.anabelen.com

Ana Peluqueria

- Orlatamendu
- matxakak
- ilargizkoak
- Aurpegiko tratamendua
- Makilajea
- Corputz tratamendua
- Depilazioa
- Mikropigmentazioa

TEL. 94 452 10 10

"7 bat emango nieke aurtengo jaiei"



Haritz Petralanda, Jai Batzordeko kidea

Zer deritzezu aurtengo jaiei?

Aurrerapauso handia egin dugula pentsatzen dut. Izan ere, orain dela urte pilo ez zegoen koadrilentzako jokorik, parte hartzea... eta herriko jendea jai-giroan murgiltzeko taldeak eta holako konpartsak sortzea pentsatu dugu aurren. Nire ustez, herriko jendeak parte hartzea ona izango da jaietarako. Horregatik, adin guztietako jendeari zuzendutako egitaraua osatu dugu. Beste alde batetik, Su Ta Gar musika taldearen kontzertua ere itzela izango dela uste dut.

Eta musika goizeko 4etarako kenduko omen da...

Hori txarra da gazteontzat, ordu horietan oraindik jai egiteko gogoia izaten dugu eta. Hala ere, besteengan ere pentsatu behar dugu. Musika baxuago jarriko balitz, sikiera...

Gaztea izanda, txosnetatik ibiliko zara.

Zelako giroa dago bertan?

Oso giro alaitua eta ona dago. Beste herrietako gazteak ere biltzen dira bertara.

Ezer sumatzen duzu faltan jaietan?

Egia esan, ez dakit... Aurtengo jaiak nahiko ondo daudela pentsatzen dut.

Orduan, eman iezaiezu puntuazioa jaiiei.

7 bat, gauza guztiak hobetu ahal direlako.

Dena dela, primeran pasatzeko asmoa izango duzu, ezta?

Jakina! Jaiak onak edo txarrak izan arren, ondo pasatzeko modua topatzen da beti.

San Martinak 03

Zemendiak 7, barikua

18:30etan Koadrilen aurkezpena
19:00etan Pregoia, txupina eta karameluak
19:30etan Kalejira nagusia
Bertoko Soinu Taldea
Erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak
Perretxiko-jana
23:00etan Gau dantza: Patxi, 1, 2, 3

Zemendiak 8, zapatua

11:00etan Kalejira Bertoko Soinu taldeagaz
11:30etan Umeen eguna
11:30etan Kulki
13:00etan Txotxongiloak: Antzerkizuna, Euskal Herriko Itsasoa.
13:30etan Tabernarik taberna J&B fanfariagaz
14:30etan San Martinetako bazkaria J&B fanfariagaz
16:30etan Koadrilen jokoak
18:30etan Hiru Bat dantza taldea
20:30etan Abesbatzak (San Martin elizan)
Zeanuriko Abesbatza. Zuzendaria: Soraia Agirregoikoa
Quodlibet Kamara Taldea
Zamudioko Kamara Korala. Zuzendaria: Iratxe Guezuraga

23:00etan Rock kontzertua: Su Ta Gar

12:30etan Gau dantza: Trikitio

Zemendiak 9, domeka

11:00etan Meza nagusia
11:45etan Kalejira Elai Alai txistu taldeagaz
12:00etan Igor Elortza eta Aitor Mendiluze bertolariak
12:30etan Bizkaiko Harri-zulatazaileen Banakako Txapelketa
19:00etan Sutargi dantza ikuskizuna, Aukeran taldeagaz, Udal kiroldegian

Zemendiak 10, astelehena, San Martin bezpera

16:00etan Karta-jokoak Adintsuen etxean
18:00etan Koadrilen jokoak
20:00etan Errormeria Luhartz taldeagaz
Dantza-txapelketa



Zemendiak 11, martitzena, San Martin

11:00etan Meza nagusia
11:45etan Trikitixa: Koldo eta Sabih
18:00etan Takolo Pirritx eta Porrotx, Katxiporreta
19:30etan Koadrila txapelketaren sari banaketa

Zemendiak 12, eguaztena, San Martintxu

11:00etan Meza nagusia

Egunero, txarribodak Zamudioko taberna eta jatetxeetan



Zamudioko jaiak gora San Martin!!!

GAMINIZ
REINTEGRANT



ARTESANOS DE CALIDAD

REINTEGRANTE PARA CEMENTO - 25L, 50L, 100L, 200L
CALLE 112 - P. 1º - 48170 Zamudio (Bizkaia)
9452 24600 (24h) - 9452 24601 (24h)

**ESKOR
ERAMENDI**



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga Auzoa, 119
Tfn: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Mead

Mead Embalaje S.A.

San Martin, 28 -
48170 Zamudio - Bizkaia

☎ 34 - 94 452 38 48
34 - 94 452 35 16

Telefax 34 - 94 452 30 88
34 - 94 452 30 22

e-mail: ics34@mead.com

Espektakulak:

- Festival
- Filmer, baskibaloia
- Antzerkia orkestra eta bandak
- Auzolanean jarduerak, l.
- 14550 Zuzen
- 14550 Zuzen

Yerarik irakia

Crazy Guitar

Zinudio

CONDAT

LUBRIFICANTES

Tfn: 945 415 505
J. A. Zabala

- Teladrinak
- Koipeak
- Deformazio elioak
- Mantentzen uzko elioak

**TOLDOS
ZAMUDIO S.L.**

- Toldak valde eta aldetara
- Toldak kargatu eta ireki
- Ogiak toloen mantentze lanak

**Eskeatu aurkeztu
konpromiso berri**

Pel. Torre-lamagotz I P-4 A-4
48170 Zamudio (Bizkaia)
Tel. 94 452 35 85

cianoplan s.a.

11 BARRIO INDUSTRIAL 100 APT
48170 Zamudio

Tfn: 944 20 57 51
944 20 57 67
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta pluma argiak
- Karlotak, kaleratze eta z/b.
- Digitalizazio eta baskortze, automatizazio eta laguntza.
- Fotokopiatze kaleratze eta z/b.
- Era desberdineko koadernak eta liburuak.
- Plastifikazioak.
- Oze berberak.

San Martin jaietako kartel eta logotipo lehiaketaren irabazleak

Zamudioko Udalak antolatutako San Martin jaietako kartel eta logotipo lehiaketan 15 lagunek hartu dute parte. Lehiakide bakoitzak lan bat baino gehiago aurkeztu ahal zuen eta 11 kartel eta 15 logotipo jaso dira guztira. Epaimaimahiko batzuei galdetuta, erabakia hartzea ez zela bat ere erreza izan esan digute. Azkenean, Jose Manuel Barrosoren kartela eta David Pulidoren logotipoa saritu zituzten. Aikor!rek eurekin hitz egin du.

Kartela lehiaketaren irabazlea



Juan Manuel Barroso

Zer dela eta animatu zinen parte hartzera lehiaketan?

Algortakoa banaiz ere, Zamudion erosi dut etxea eta laster etorriko naiz hona bizitzera. Alkatearen bandoa irakurri nuen kasualitatez eta, diseinatzaile grafikoa naizenez, parte hartzea erabaki nuen.

Zer adierazi nahi duzu kartel honen bidez?

Nahiko kartel erraza egin dut, baita deigarria ere. Egia esan, ez ditut Zamudioko jaiak ezagutzen, baina txosnak elizaren ondoan dagoen aparkalekuan jartzen direla jakinda, eraikin hori atzealdetzat hartu dut. Horren gainean, ziluetan batzuk ipini ditut. Jai-giroa, batez ere, adierazi nahi nuen, ba kolore biziak erabili ditut. Dena dela, kolore batekin arazo txiki bat eduki eta aldatu beharko dut azkenean.



Logotipo lehiaketaren irabazlea



David Pulido

Zamudiokoa izan arren, Bartzelonan bizi zara...


Bai. Udalak lehiaketa antolatu zuela amak esan eta pare bat lan aurkeztera animatu nintzen. Ni ere disenaitzaile grafikoa naiz.

Azaldu apur bat zertan datzan zure logo hori.

Zamudioko zerbait tipikoa aurkeztu nahi nuen. Horrexegatik aukeratu perretxikoa eta jai-itxura eman nion. Koloreak, ikurriñakoak, noski.

Eta zertan oinarritu zara perretxiko jaizale hori diseinatzeko?

Bereziki ezertan ez. Ziriborro batzuk egin eta diseinu hori nahiz bestea gustuko izan nituen. Beste ideia batzuk, berriz, paperontzira bota nituen.



Aitor Coteron, aktorea:

"Gehien kostatu zitzaidana mutil bati musu ematea izan zen"



Abenduaren 20an heme-retzi urte egingo dituen gazte hau Goierriko (Erandio) Mezobarri base-rriko semea dugu, halan-da ze, Txorienikoa. Gutariko askok jaietatik ezagutzen dugun arren, ETB1-eko Goenkale telesail arrakastatsuan Ganixen papera egiteagatik egin da ezagun, batez ere. Orain Madrilera joango da ikastera (aldizkaria argitaratu orduko han egongo da). Parrandan ibiltzea ez eze, musika jo zein entzutea ere sano gustuko du. Pandero-jolea eta soinujolea da eta Benito Lertxundiren fan amorratua.

ZAMUDIO MOTOR



34 452 1818
34 452 1824

Pa. Zamudio
980. 10. 00001
98001. 00000
98000. 00000

REPARACIONES DE AUTOMOVILES

Comunicación

TXORIERRI

Real Asociación Txorierri

TAKA ETA LAKE FINTURA

980. 10. 00001 **98001. 00000**

98000. 00000

Vértigo

UNIVERSIDAD DE VÉRIGO

VERIGO. 10. 00001

VERIGO. 10. 00001

VERIGO. 10. 00001

TALLERES JUAN ANDRÉS

REPARACIONES DE AUTOMOVILES

VERIGO. 10. 00001

VERIGO. 10. 00001

SUNSHINE COMPANY

VERIGO. 10. 00001


VERIGO. 10. 00001

VERIGO. 10. 00001

luz zamudio

VERIGO. 10. 00001

VERIGO. 10. 00001



Nire lehengusu batek telebistan ikusi zuen Hasiberriak telesailerako makrocasting bat egiten ari zirela eta hara joateko animatu ninduen. Euskaldunan nire izena apuntatu, oparitxo bat eman eta etxera bidali ninduten. Esan zidaten, gura izanez gero, nire curriculuma Pausokara bidaltzeko eta horixe egin nuen. Handik astebete-
ra deitu ninduten Donostiara joan eta han beste casting bat egiteko. Lehenago ez nuen horrelako beste ezer egin, baina zelan egin nuen gustatu zitzaien, antza, eta Goenkale-rako aukeratu ninduten.

Ganix Irlandara bidali dute ikastera eta, beraz, denboraldi baten behintzat ez naiz

*"Goenkalen sano
gustura egon naiz eta
asko ikasi dut"*

Bai! Ni naiz “un gancho enganchado”!
Broma egin zidatenean haserretu egin nintzen, gainera! Baina hor nabil beharrean, denetarik egin behar da-eta!

Bai. Nire papera amaitu egin zen eta kito. Urte bi eta erdi inguru egon naiz han, eta ez dago batere txarto!

Bai. Sano gustura. Pilo bat ikasi dut gainera!

Hasieran amak edo aitak eraman behar izaten ninduen Bilbora. Han autobusa hartu eta Donostiaraino. Donostian beste autobus bat hartu, eta Miramonera. Eta grabatzera Oriora joaten ginenean (astean behin) taxi bat alokatzen ziguten handik Oriora joateko. Goiz erdia bidaian pasatzen nuen eta ni beldurrez Orioko eguna heltzeko! Gero, neure kotxez joanda, a ze diferentzia!

Ez, astean bi edo hiru aldiz. Nire kontratua hilean zortzi egunetakoa zen, baina, badakizu, hortik gora beti. Baina behera inoiz ere ez.

Grabaketa egun bat

Han grabaketak goizeko 8:30etatik arratsaldeko 3:30etara izaten dira. Lehenengo sekuentzia edukiz gero, 7:30etan han egon behar izaten da, beraz, goizean goiz itzartu, dutxatu, armozua jan eta Miramonera! Lehengo beharra arropak-eta utzi eta makillajera joatea izaten zen. Ni 5-10 minutuan eginda nago (eskerrak), baina neskak... ordu erdi egoten ziren eta pozik! Gero norbere txanda heldu arte itxarotea nekaqarriena izaten zen.

Egunean 15 bat sekuentzia grabatzen dira. Horrek esan gura du egunero kapitulu bat grabatzen dela, eta hori ez da asko ikusten! Madrilen kapitulu bakoitzeko aste bete behar izaten dute. Halanda ze, atera kontu, estresantea da oso! Entsegua tope eta batzuetan entsegurik ere ezin egin; bost minutuko errepasoa eta barrura!

Beraz, hanka barra-barra sartuko zenuten, ezta?

Ez pentsa! Asko entseatutako eszenak izaten dira gaitzenak, ze bi edo hiru bider errepasatutako testu bat interpretatzean esaten duzunari adiago egoten zara.

Batzuetan esango dizuete “honek ondo eta lehenengoan irten behar du eta...”

Bai. Azken sekuentzia bazen, arratsaldeko 3ak izan ohi ziren eta zuzendariak horixe esaten zigun “denboraz txarto gabilta eta sekuentzia hau sartu behar da”. Eta txarto irtenez gero... Buf!

[illegible]

“Neurririk hartu ezean euskara gizarteko goi mailako jendearen hizkuntza bihurtuko da”



Pasa den irailean Gotzon Lobera Zamudiora etorri zen Txorierriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) berri ematera. Aikor!rek berarekin hitz egi- teko aukera izan zuen.

Lehenengo eta behin, azal diezaguzu zein den euskararen egoera, zure ustez.

Kontuan hartzen badugu edozein hiz- kuntzaren biziraupena bermatzeko behar dela gutxieneko masakritiko bat, orain dela 20 urte euskaldunak sortzea geneu- kan kezka nagusi eta ildo horretan, jakite mailari dagokionez, aurrera egin dugula esango nuke. Orain, ordea, euskara bizi- tzaren edozein arlotan erabiltzea dauka- gu erronka. Hori lortzeko mikroerkidegoak sortzea beharrezkotzat jotzen dugu. Dena dela, lan gaitza da hori. Horrela, bada, euskaldun gehienak euskaldun berriak dira eta euren betiko bizi arrunteko esparru guztiak gaztelaniaz bete izan dituzte. Orduan, edozein arlo- tan egin dezaketela euskaraz ohar daite- zen hizkuntza gaitasuna sendotu beharko litzateke eskolatik kanpo ere bai. Beste alde batetik, umee berretzen dituzte gurasoen eskemak eta, gurasoetako

batek euskara jakin arren, etxeko hartu- emanak gaztelaniaz badira hizkuntza hori izango dute erreferentetzat. Hala ere, etorkizunari begira, ez dugu geure burua zigortu behar, baizik eta oinarriak jarri gure seme-alabek euren umeein euska- raz egin dezaten.

“Oinarriak jarri behar ditugu gure seme-alabek euren umeein euskaraz egin dezaten etorkizunean”

Mikroerkidegoak sortzea beharrezkoa dela aipatu duzu, zer dira mikroerkide- go horiek?

Mikroerkidegoak dira egunean egiten

ditugun taldeak, zure koadrila adibidez. Ideia da taldeak osatzea egunero egiten ditugun ekintzak euskaraz izateko. Hau da, eskolatik kanpo dantza ikastaro batera joaten bagara, ekintza hori euskaraz izan dadila...

Nire ustez, sistema bera aplikatu diogu mundu guztiari eta hori txarra izan da. Beste era batera egin litekeela pentsatzen dut. Adibidez, euskaraz ez dakiten guraso- ekin helburuka lan egin genezake. Horrela, euskarazko 100 orduko kurtsoa eman beharrean, oinarritzko ezagutzak eman lekizkieke hiru edo lau urteko seme- alabeei lagundu ahal izateko. Badakigu ez direna euskaldunduko, baina ez dira izan- go elementu distortsionatzaile hartu-eman linguistikoetan, behintzat.

Eta mikroerkidego horiek osatzeko, zelako pausuak ematen ari dira?

Txikiakaz nagusi izeneko kanpaina

“Edozein herritako biztanleek elkar ezagutzea, pertsona eta euskaldun legez oso inportantea da”

daukagu azkena. Sei herritan, Arrigorriagan, Basaurin, Berangon, Leioan, Erandion eta Getxon hain zuzen ere, burutu da. Eredu informalekin lotuta dauden euskarazko ekintzak, irteerak, asteburuko egonaldiak... antolatu dira kanpaina horren bidez. Ekintza horiek guztiak euskaraz egiteaz gainera, herriko umeek elkar ezagutzeko helburua ere izan du kanpainak. Izan ere, guraso askok herritik kanpo lan egiten dutenez eta umeek ere herritik kanpo ikasi, ba ez dute bizitzarik egiten euren udalerrietan. Ildo horretatik, edozein herritako biztanleek, pertsona eta euskaldun legez, elkar ezagutzea oso inportantea da.

Gainera, nahiz eta gurasoetako batek ez jakin, bestearekin euskaraz egin deza-tela gogoan hartu behar dugu umeengan.

Zein da Foru Aldundiaren eginbeharra honetan?

Herrietan landu nahi diren ekintzak koordinatu eta suspertzen ditugu. Hala ere, euskaldun kopurua kontuan hartuta ekitaldi batek izan leike lehentasuna toki batean eta beste batean, berriz, ez. Horrexegatik, guztiontzako baliabiderik egon ezean aukeratu behar izaten dugu.

Euskarazko talde horiek sortzeko bidean oztoporik...

Arazo handienetariko bat kirolean aurkitzen dugu. Estadistiken arabera,

euskaldunok izan gara betidanik goi mailako postuetan eta, adibidez, futbol entrenatzaile gehienak erdaldunak izan dira. Saskibaloian gauza bera gertatu da orain-tsu arte. Nolanahi ere, gaur egun INEFetik datozen guztiak euskaldunak direla egia da, baina ez daukagu behar den beste jenderik talde horiek guztiak bideratzeko.

Hori bizitzaren beste arlo batzuetan ere ezargarria da. Nik ez daukat trabarik abokatu euskaldun bat topatzeko, baina igeltsero euskalduna aurkitzeko bai. Nire ustez, inork neurririk hartzen ez badu, euskara gizarteko goi mailako jendearen hizkuntza izango da.

Galaz aldatuz, zelan ikusten duzu teknologia berrien zeregina?

Nahiz eta euskarazko nabigatzaileak erabili, Interneten topatzen ditugun edukiak gaztelaniaz daude. Orduan, gabezi horri aurre egin beharko genioke euzkarazko edukiak sarean jartzen lagunduz. Dena dela, oso ondo aukeratu beharko genuke zertan ahaleginak egin eta zertan ez. Nire iritziz, askoz interesgarriagoa da eskuko telefonoen hizkuntza lantzeko laguntza ematea batek nahi duenari buruzko web orri bat jartzeko baino. Zergatik? Masa kritikoaren ikuspegitik bigarrenak ez duelako erabiltzailerik.

“Oso pozik nago zuen lanarekin, gainera leku guztietan egoera ez dela berdina jakinda”

Harreman estua daukazu herri aldizkari-ekin, zer deritzozu gure lanari?

Azken urteotan Topaguneak oso

behar polita egin duela onartzen dut. Oso pozik nago zuen lanarekin, gainera leku guztietan egoera ez dela berdina jakinda. Baina nik galdera bat egingo nizuke: Dirulaguntzak emateari utziz gero, zeintzuk iraungo zenukete? Mugimendu lez, planteatu behar diozue zeuen buruari proiektua aurrera ateratzeko gauza zareten.

Beste alde batetik, herri informazio asko irratitik edota telebistatik jasotzen da momentu honetan. Hori dela eta, herri aldizkariaren etorkizuna paperean ez dagoela uste dut. Nik sarean jarriko nituzke. Horrela, albisteak berehala eman ahalko zenituzke eta jendea web orrialdean sartu eta sartu egingo litzateke. Halaber, publizitatea lortzeko bide egokia izateaz gain banaketaren kostuak desagertu eta beste gauzatan inbertitu ahalko zenukete diru kopuru hori.

Txoriemiko EBPN aurkeztera etorri zara Zamudiora, zein da zure iritzia plan horren inguruan?

1999.ko abenduaren 10ean onartu zen Plan hori Eusko Legebiltzarrean, EAJ, EA, EB eta orduko Batasunak aldeko botoak emanda. Nire ustez, ez da Autonomi Erkidegorako proiektua, ez bada Euskadi osorako, zazpi herrialdeak hartuta. Horrezaz gain, zer eta non bultzatu zentzunez pentsatu behar dugulakoan nago. Izan ere, EBPN-erako aisiak, esaterako, izan leike lehentasuna Txorierrin, baina Ondarroan beste gai batek izan leike.

EBPN-ek herriek dituen beharrei erantzuteko laguntza eskaintzen du eskema teoriko zein praktikoaren bidez. Guk koordinatu egiten dugu, baina udalek herriko eragileekin egin behar dute lan zein arlo jorratu behar den jakiteko.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA

10 URTEKO PERMANENTIA, PROTEIN GUZTIAN GRABIA GARRIAK

ARTEAGA
KONTAKU- ZENTROA

Artximatek Berriak Sarramirua

BERIO

Telefonoa: 94 454 52 47


ORDU JARDUKA:

Asteburuetan eta bazkari-orduak

10:00ak - 13:00ora

eta 16:30ak - 20:00ora

igandak eta 10:00ak - 14:00ak



“Abisakoa gure herrialdetara”

bbk ez da urregorrien gordeleku

2001eko abendua, Larrabetzuko Hori Bai gaztetxekoek urtero antolatzen dituzten Gabonetako Kultur Ekitaldiak egitarauan, Joseba Sarrionandiari buruzko hitzaldia emango du Iñigo Aranbarrik. Lau zorok, hitzaldiaren aitzakiatan, lurretako bardoaren testuekin irakurraldia egitea pentsatzen dugu. Testuak aukeratu behar dira, musika sartuko dugu?, norbaitek soinu ekipoa beharko genukeela iradokitzen du, aurrez entseatu beharko genuke...azkenerako lau zoro barik 10 batu gara. "Hi, izenan bat behako juk, eztok? Zer deritzozue bihotz bakartien kluba? Ona hi, inderra jekok, indibiduoa eta kolektiboa, kolektiboa norbanakoen batzea". Izena Lagun Izoztua liburuan agertzen da eta Atxagak ere aspaldi erabili zuen, baina guk Sarriri Argia-n egindako

"Hi, izenan bat behako juk, eztok? Zer deritzozue bihotz bakartien kluba? Ona hi, inderra jekok, indibiduoa eta kolektiboa, kolektiboa norbanakoen batzea"



Bihotz bakartien klubeko partaideak


elkarriketa batetik atera genuen. Iñigo Aranbarriren hitzaldira jende asko etorri da eta asko dira errezitaldia entzutera hurbildu direnak. Urduri gaude, etxekoen aurrean, lehen aldia da jendaurrean irakurtzen duguna, gozatu egin gura genuke...Txaloak, irribarreak, lasaitasuna. Denak oso gustura egon ei dira, hitzek zentzua izan dezaketela dirudi, esan behar dutena esaten dutela. Helburua bete egin dugu.

Ostera, handik bi astera Deustuko Gazte Lokalean errezitaldia ematera joateko eskatu ziguten. Onartu egin genuen. Gure saioari izena jarri behar geniola ebazti eta Sarri gure artean deitu genion. Deustukoaren ostetik Gasteiza deitu gintuzten. Gaztetxera. Gure hirugarren saio hura izan zen arrakastatsuen. Gaztetxeko ganbara zoragarrian 80 lagunetik gora batu ginen, ia leku barik, bata bestean gainean edota altzoan. Saioa ordubetera luzatu bagenuen ere, entzuleak gosez geratu ziren. Saio horretatik aurrera hasi ginen bbk-ren ezaugarrietako bat jorratzen. Kluba ginen, beraz, bazkide berriak izatea arrazoizko zen, bazkide literarioak, noski. Kirmen Uribe izan zen lehena. Gurekin batera aritu zen Gasteizen Sarriren testuak

irakurtzen eta entzuleek estimatu zioten. Idazlea eta irakurlea, irakurlea eta idazlea. Bikote banaezina behar lukeena dibortziazeko zorian zegoela iruditzen zitzaigun, distantzia handiegia dagoela bien artean, troka zabalegia. Horixe bera bihurtu da bihotz bakartien klubekoon helburu nagusietako bat: irakurle eta idazlearen arteko harremanak estutzea, idazleak irakurleen-gana ekarri eta aurrez aurre jartzea, idazleak irakurlea entzutea, irakurleak idazlearen obra hurbilago, bereago sentitzea.

"Bihotz bakartien klubekoon helburu nagusietako bat irakurle eta idazlearen arteko harremanak estutzea da"

Helburu hori lortzera, hilean baten literaturarekin zerikusia zuen saio bat antolatzeari bururatu zitzaigun, beste leku askotan egiten diren "irakurleen txoko" horien antzekoa, eta horretan gabilta 2002tik



Unai Elorriaga Larrabetzuko Tran2a errezitaldian



gaur arte. Ordutik hainbat idazle etorri dira Larrabetzura: Harkaitz Cano, Pako Aristi, Arantxa Iturbe, Kirmen Uribe, Gotzon Hermosilla... Luzien Etxezaharretak iparraldeko literatur produkzioaz, hegoaldekoon harrokeri eta indiferentziez eta Maiatz aldizkariak hitz egin zigun eta Oreretako Mikelazulo eta Azpeitiko Diapoesia taldeetako gazteek poesia erre-zitaldiak eskaini dizkigute. Herrian literaturaletasuna errotzeko hazitxuak baino ez dira, akaso egunen baten ernatuko direnak.

Bitartean erre-zitaldiekin jarraitu genuen eta Sarrirenaren 20 bat saio egin-da genituenean beste zerbait egitea otu zitzaigun. Izan ere, guk ez dugu dirurik irabazi gura, guk irakurtzen gozatu gura dugu, literatura bizi, eta gainera, poesiak ez du inor aberasten. Euskal Herriko literatura irakurtzen dugu, baina ez hori baka-

rrik, munduko beste sortzaile batzuen lanak ere gustuko ditugu, zergatik ez diogu gure literatura xumeari munduko literaturan lekua egiten? Gurea berandu izartu den literatura idatzia izanagatik, ez da literatura kokoa ez letramatza, guk hala uste dugu behintzat. Poeta Hilan Kluba ikuskitzuna sortu genuen. Erdarazko testuak itzuli eta euskarazko testuekin buztartu eta ibilaldi poetiko-nekrologikoa egiten dugu, hilda dauden poetak gogoratuz. Baina hilda egotea ez da batzen dituen arrazoi bakarra; munduaren antzeko ikuskerak, pentsakeraren lubaki berean egoteak egiten ditu bidailagun. Ikuskizun honetan zuzeneko musika: bibolina eta esku-soinua, grabatutakoa, irudiak eta hitzak nahasten dira.

Hirugarren ikuskizun bat ere apailatu dugu, Zakil Alu hori! deritzona. Testuak erotiko-pornografikoak dira eta irudiak sentsual bezain esplizituak. Aurtengo negutik aurrera aurkeztu dugu hitzartuta ditugun emanaldietan.

Testua eta argazkiak: Bihotz bakartien kluba

Literatura eskolaren egitaraua

BBk-k antolatutako literatura eskolan hainbat gai jorratuko dira. Hitzaldi guztiak larunbatean, goizeko 10etan, izango dira Larrabetzuko Goikoelezelako Kultur Etxean.

Pizkundea: Aitzol modernitatearen kontra. Urriak 18.

Banguardiaren arriskuak: Vladimir Maiakovsky eta Aime Cesaire. Gonbidatua: Jose Luis Otamendi. Azaroak 15

Literatura Aldizkariak: Euzko Gogoatik gaur egunera. Gonbidatua: Mikel Elorza. Abenduak 13

Kazetaritzatik literaturara. Bi eredu: lekukotasun historikoa eta bidaia kronikak. Gonbidatua: Alberto Barandiaran. Urtarrilak 17

Gabriel Aresti. Gonbidatua: Koldo Izagirre. Otsailak 14

Joseba Sarrionandia: denbora eta espazioa Martxoak 13

Antzerkia Euskal Herrian. Gonbidatuak: Mikel Martinez, Josu Kamara, Antton Luku eta Antzerkiola Imaginarioa. Apirilak 17

Antilogika arma legez: Fernando Amezketa eta Nikola Agirre Metxa. Maiatzak 15

Silvia Plath, Alejandra Pizarnik eta Anne Sexton: Heriotzaren marka. Gonbidatua: Kirmen Uribe. Ekainak 12

Literatura Eskola 03

Irakurlearen parte hartze aktiboa aldarikatu dugu gure sorreratik, irakurleak literaturaren sortze lanean zer esana baduela uste dugulako, irakurlearen parte hartzerik gabe gure literatura agoniara kondenatuta dagoela pentsatzen dugulako, irakurlea idazlearen bizilaguna delako. Horregatik otu zitzaigun Literatura Eskola abian jarzea. Izenak anpulosoegia emango du baina guk apaltasunez aritu gura dugu.

Zinez irakurleen eskola izan gura du, laborategi literarioa, kutsu akademizista oro baztertuz eta eztabaida eta iritzi trukean oinarrituz. Hau guztiau zuzentzeko konpromisoa Iñigo Aranbarrik hartu du. Berak hartuko du partehartzaileak zirikatzeko ardura, pentsaraziko duten galderak asmatzeko lana, dakiena gurekin konpartitzeko borondatea. Hilean baten bilduko gara, urritik hasi eta ekainera bitartean. Orduan, egingo

dugun hausnarketa kolektiboak emaitzaren bat izatea espero dugu. Internet ere oso garrantzitsua da guretzat. Izan ere, sarean eskegiko ditugu saio bakoitzean berba egindakoak, erreferentziak, bibliografiak...nahi duen orok kontsulta ditzan eta parte har dezan.

Helbidea www.armiama.com/eskola da. Hor duzue gure matxinada literarioaren proklama.



AVRTENETXE, S.L.

MAINTENIMIENTOS Y REPARACIONES DE
MUEBLES Y JUEGOS DE MADERA

ARMAMIA Y FAMILIA

Artea, 10

Tel: 94 477 41 66

Fax: 94 477 41 66

gurea LARRA (Bilbao)

Artea, 17

Tel: 94 477 41 66

Fax: 94 477 41 66

gurea LARRA (Bilbao)

Larrabetzuko Anguleri Jauregia kultur gunea

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina


Larrabetzuko Kultur etxea ofizialtasunez inauguratu zen pasa den urriaren 4an. Tokiz aldatu eta hemendik aurrera Anguleri Jauregian izango du egoitza. XVIII. mendeko eraikina berritzeko lanetan 600.000 euro baino gehiago inbertitu ditu Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagunduta. Bertan, kultur aretoa, liburutegia eta KZgunea edukiko dituzte larrabetzuarrek.

Anguleri Jauregia eraberritzeko beharrak hiru fasetan burutu dira. Etxea libre geratzeko ugazaba eta inkilinoekin akordio batera ailegatu eta gero, teilatua eta barruko estruktura konpondu ziren lehenengo fasean. Bigarren zatian, lehioak eta barruko arotzeria egin ziren eta berrikuntzari amaiera eman zaio hirugarrenean. Halaber, altzariak erosi eta kristalezko igogailu panoramikoa jarri da. Eraberritzeko lanak lau urtetan egin dira.

Eraikinak hiru solairu dauzka. Beheko solairuan kultur aretoa atondu da. Gela hori erakusketetarako edota hitzaldiak emateko, besteak beste, erabiliko da. Beste alde batetik, liburutegia lehenengo solairuan kokatu da. Bertan, umeentzako txokoa zein irakurtzeko sekzioa daude. Liburutegiko katalogoa kontsultatzeko, 6.000 liburu orotara, OPAC sistema ipini da. Horrezaz gain, hemeroteka, bideoteka eta cedeteka zerbitzu berriak ere eskainiko dira.

KZguneak bigarren solairuan jarraituko du Eusko Jaurlaritzak zerbitzua eskaintzeari utzi arte. Zentzu horretan, Udalak nabigatzeko beste zerbitzu bat behin betiko jartzeko asmoa daukala aipatu beharra dago. Ikasteko zein irakurtzeko lekua ere izango da solairu horretan.


Liburutegia arratsaldeko 4etatik 8etara egongo da zabalik. Gainera, bibliotekaria suspertzaile soziokulturalaren lanetan ere arituko da.




Umeentzako saila




OPAC sistema dago liburuak kontsultatzeko




Kristalezko igogailu panoramikoa



6.000 liburu orotara daude liburutegian



Arratsaldeko 4etatik 8etara egongo da zabalik liburutegia



Kultur aretoa

5 minutu

Testua: Fernando Larrondo

Akabo 10-12 km egiteko egunean ordubete errepidean emon beharra. Bazan sasoia! Azaroaren bigarren astetako –azaroaren 14an– ateak zabalik eukiko dauz Txorierri iparretik hegora gurutzatuko dauan autobideak, korredoreak. Lanaldi bitan burutu dan lan itzel horrek lasaitasun apur bat ekarriko deutse ber-

toko herritar zein behar-
ginei, urteetan jasandako
auto-ilada amaibakoak
desagertu edo, behintzat,
herriguneen kanpoaldera
joango dirata. Lehenengo
zatia, Erletxetik
Larrabetzura doana, apiri-
latik erabilgarri bagendu-
kan be, bigarren zatia
zabaldukeran –Deriotik
Larrabetzura- igarriko da
gehien bat komunikabide
barri horren eragina.



Larrabetzuko irteera goian; behean, Aranoltzatik lur azpitik joango den korredorearen zatia



Korredorea datutan

Gure herrialdean azken urteetan burutu dan azpiegitura egitasmorik handienetakoa dala esaten badogu ez dot uste inor harrituta geratuko danik, ez eta oihartzun handienekoa dala esatean be. Asfaltozko bizkarrazur horrek Bilbo Handia eraztun batez inguratzeke falta zan zatia dakar, eta horregaz, Euskal Herriko eskualderik populatuenekeo trafiko-arazo larri eta konponezinak baretzeke bidea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez egindako lan horren garrantzia bere zenbaki erraldoietan isladatzen da:

-Derio-Larrabetzu tartean, 8 km ardatz nagusian eta 7 km urtekera-adarretan eta saihesbideetan

-Larrabetzu-Erletxeta tartean, 1,5 km ardatz nagusian eta 4,950 km urtekera-
adarretan eta saihesbideetan

-95-100 milioi euro, egindako inbertsinoa

-1000000 m2 desjabetzeetan
(espropiazinoetan)

-9 milioi euro lurrak erosteko edota
espropiatzeko

-31 hilabete, lanen iraupena

-4 bidezubi

-3 zubi

-6, behe-pasabideak

-goi-pasabide bat

-6, eragindako herriak

-7, botatako baserriak edo txaletak

-4, tunel faltsuak

-Indusketea, 4.610.606 m3

-Betelanak, 2.450.289 m3

-Erabilitako asfaltozko aglomeratua,
320.727 tona

-5, Deriotik Erletxetara joateko bidean emongo doguzan minutuak.

[illegible]

 **UMENTZANO
MODA**
Trimeleta

LAVORAZI URGENTI
Telefono 04-89 14 11
Linea 04-89 28 26

ESCLUSIVO
Soleto

[illegible]

Fermin eta Maria Jesus Atela, Derioko txakolina

Aurten be txakolinaren uzta heldu da, uda zoragarria euki dogu mahatsak behar dauen puntua lortzeko. Honetaz eta beste gauza batzuez egin dogu berba Fermin ta Maria Jesus Atela aita-alabakaz.

Uda amaitu da eta beharrari ekin behar jako, zelango uzta da aurtengoa? Zenbaterainoko itxaropena daukazue aurtengo txakolinean?

Aurtengo txakolina itzel ona da, alko-hol-graduazino altukoa. Hondarrabi zuria, esaterako, 13'5° ingurukoa. Gure mahastiak oraindino gazteak dira, eta kantidadetik aldetik aurreko urteetan baino kilo gehiago batu doguz. Aurtengoa hirugarren urtea izan da eta ekoizpena hazten doa urterik urte. 1400 litro lortu doguz.

Zein da txakolina egiteko prozesua?

Mahatsa puntuan dagoenean, batu egiten dogu. Horretarako, errefraktometroa daukagu; alkohol maila emoten deusku. Gero garauak abartxuetatik banatzeko makinan sartu eta dolarean sartzen dogu mostoa lortzeko. Horren ostean, 36 orduan altzairuzko kupeletan sartzen da, metabisulfito eta entzimakaz mostoa garbitzeko. Kupelaren beheko aldean ardanbera gelditzen da eta mostoa beste kupel batzuetara pasatzen da irakite prozesua hasteko, 8-10 egunean.

Mostoa irakiten amaitu eta gero, kupe-lak hermetikoki itxita gelditzen dira. Gabonak baino lehenago, txakolina iragazi egiten da, eta Gabon inguruan etnologoa bere oniritzia emoten etorten da. Dana ondo badago, sanjoseetarako badaukagu prest edateko.

“Mahatsa batu arte, zortzi edo bederatzi tratamendu egiten doguz, mahatsa galdu ez daiten”

Eta, urte osoan asko jagon behar da mahatsa?

Hori da beharrik gogorrena. Inausketa Gabonetatik aurrera egiten dogu. Lau urterik behin igitaia pasatzen dogu zuztarretara oxigenoa pasatzeko. Behar izanez gero, ongarria botatzen dogu. Mahatsa batu arte, zortzi edo bederatzi tratamendu egiten doguz, mahatsa galdu ez daiten. Lehen sufrea eta sulfatoa botaten zan.



Fermin eta Maria Jesus Atelaren mahastiak

Gaur egun tratamendu ekologikoak egiten saiatzen gara.

Horrenbesteko beharrak merezi dau?

Oraindino ez. Errentagarria izateko, 5000 litrotik gora atara behar dira, eta gure mahatsondo gehienak gazteak dira oraindino. Lan ordu asko dira. Txakolina ondo aurkezteko, botila, etiketa, kapsula eta kortxoa behar dozuz eta hareek 60 zentimo inguruan dabilz.

Askok esaten dabe oraingo txakolina ez dala txakolina:

Lehenagoak alkohol gehiago eukan, gogorragoa zan, naturalagoa. Oraingoa finagoa da edateko, errazagoa, azken finean garbiagoa. Oraingoak ez dauka hondakinik.

Bide honeri jarraituta, noraino helduko zarie?

Daukaguzan mahatsondoakaz 5.000 litrotik gorako produkzinora heldu behar dogu. Hortik aurrera, batek daki.

Hemen txakolingileen laugarren eta bosgarren belaunaldiak gagoz. 1891n, gure familiak baserri hau (Aretxagane) erosi eban. 1912. urtean kanposantua egi-ten ebilzanean, lurra erosi euskuen, eta

*Txakolin, txakolin,
txakolinak on egin,
Maritxo arintxo da
Martintxo:
Ase naz nafarrez
txuri gorri ta beltzez
jarri nabe miñez,
gabe ere onik ez.*

lurragaz batera han egozan 700 mahatsondoak, bakotxa zentimo erdian.

2003ko lehenengo kopatxu txakolina noizko?

Zezeil edo martirako, orduan ikusiko dogu zelango txakolina dan aurtengoa.

Testua eta argazkia: Asier Oruetxebarria

Google bilatzailea

Testua: Alberto Legarreta

Frogatuta dago Interneteko web orrietako sarbidea bilatzaileak erabilia egiten dana. Gehienak bilatzaileak erabiltzen dabez Internetetik nabigatzeko, eta bilatzaileon erabilera izan da, hain zuzen be, Interneteko atarien porrota eragin dauen faktore garrantzitsuenetarikoa bat.

Azken aldi honetan Google da bilatzaileen artean gehien erabiltzen dana. Munduko bilaketan %75 Google-n egiten dira. Hona hemen Google-k hartu dauen garrantzia.

Bilaketak

Bilaketak egitean lehenengo lekutan agertzen diren orriak izaten dira bisita-tuenak. Beraz, bilaketa zehaztu batean aurreneko lekutan agertzea funtsezkoa da e-marketing arloan. Web orriaren jabearen helburua be haxe izaten da, aurreneko lekutan agertzea.

Google-ko bilaketan oinarrian algoritmo bat dago, hau da, arau batzuk ipinten dira bilaketa egiteko. Garrantzitsuena da bilaketaren emaitzak zelan erakusten diren, hau da, zein lekutan agertzen diren.

Algoritmo hori aldatu danean, gatazkak sortzen dira, ze enpresa askok galarak euki dabez aldaketa horren ondorioz, izan be, lehen, bilaketa bat eginda, aurreneko lekutan agertzen ziran, baina aldaketa horregaz atzerago agertzen dira. Batzutan, hori dala eta demandak be egon dira auzitegietan.

Bilaketaren kalitateagaitik jarri da Google lehenengo lekuan, emaitzak ikusi eta hareen artean zeuk gura dozun informazioa agertzen dalako.

Google™

Longhorn vs Google

Interneten zabaltzen hasi da Microsoft-ek bilatzaileen mundua hartu dauela helburutzat. Bere indarrak eta estrategiak horretan ipiniko ei ditu, hain garrantzitsua da arlo hori menperatzeko. Windows Longhorn izango da haren sistema eragile barria, eta haren barruan software bat eukiko dau, bilaketak egiteko. Microsoft-ek bere indar guztiak bilatzaileen munduan ipinten badauz, ez dakigu zer jazoko dan, baina aurretiko beste kasu batzuk ikusi geinkez:

- Netscape vs Internet Explorer.
- Real Player vs Windows Media Player.
- Yahoo-AOL vs MSN Messenger.

Kasu horreetan garaile urten dau eta ia-ia monopolioa sortu dau. Jende askoren ustez, hau ez da ona. Esaterako, udan birusek hainbat galera eragin ditue, birusok oinarritu diralako hainbeste erabiltzen dan Windows-en. Internet Explorer-ek zulo bat dauka segurtasun arloan, eta, hainbeste erabiltzen danez, jende hori guztia arriskuan egon leiteke.

Guk hemen beti aitatu dogu Google-n bilatzeko, uste dogulako onena eta erabili-ena dala, baina Interneten interes asko egoten dira eta etorkizunean ez dakigu zer jazoko dan.

Bidali zure iradokizun edota zalantzak hurrengo helbide elektronikoari: traktor@euskalnet.net



GARAIOLTZA, S.A.

ENHEDIZIAK ERABILTZAK

LEZAMA

ENERGIZIAK, MERKATUTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERABILTZAK, LEHIAK HANIHAK,

ORDAINTZEN DIBERTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Urdulizko 2000, 128 (Ibiza)
Lecorua (Bizkaia)

ASESORIA

Los Famosos Agente, s.l.

Mateo Sola 10044, 1

Tf: 94 99 99 28 Fax: 94 47 06 18
4090 SOROTEA (Bizkaia)

Erromatar garatik gaur egun arte, Zamudiotik barrena

Orain dela urte batzuk bi zubi eta galtzada baten aztarnak aurkitu ziren Zamudioko Uxina auzoan. Txorierriko Korredorearen ibilbidea dela eta, desagertzeko zorian izan ziren. Hala ere, auzokide eta ekologisten kexaren ondorioz, Foru Aldundiak ibilbidea aldatzea onartu zuen azkenean. Gaur egun, Zamudioko antzinako errepidea (errege-bidea) errekuuperatzeko egitasmoaren barruan daude.

1997. urtean antzinako galtzada bat eta bi zubiren aztarnak aurkitu ziren Zamudioko Uxina auzoan, nekazaritza-lanak egiten ari zirelarik. Zubietako bat harlanduz egina zen eta dobela zentraletan, gurutz baten alde bakoitzean, L eta Z sinboloak zituen.

Ikerketa arkeologikoa egin eta Bizkaiko artxiboak kontsultatu ondoren, zubiak "Puente Aricondo" izenarekin XVII. mendeko papere-tan aipatzen zela ilkusi zen. Halaber, Lezama eta Zamudioren arteko muga bezala erabil-tzen zela baieztatu ere egin zuten ikertzaileek. Horrela, bada, bi herrietako biztanleak bertan biltzen omen ziren haien arteko auziak kon-pontzeko asmoz.

Beste alde batetik, ikerketen arabera, zubiekin batera topatutako galtzada XVIII. mendeko agiritan aitatzen zen.

Santiago bidea

Azterlariak gaian sakondu eta galtzadak nahiz zubiek erromatar garaiko ibilbidea osa zezaketela ohartu ziren (egindako ikerketek ez dute argi uzten puntu hori). Gainera, ibilbi-de honetatik kostaldeko antzinako Santiago bidea pasatzen omen zen Erdi Aroan. Garai horretako azken urteetan kostaldeko Santiago bidearen zati bat Zin Bidea edo Ruta Juradera bihurtu zen. Izan ere, ibilbide hori egiten zuten Bizkaiko Jaunek foruen zina egiteko Bilbon, Larrabetzun, Gernikan eta Bermeon hain zuzen ere.

Arkeologia eta Kultura arloei dago-kienez, Uxina auzoan aurkitutako aztar-nak balio handikoak dira, Bizkaiko Historian garrantzi erligioso, politiko eta sinbolikoa izan duten ibilbideetako arrastoak baitira.



"Aricondo" delako zubiak Lezamako aldetik



Inguruan dagoen bigarren zubiak



"Aricondo" Zamudioko aldetik L eta Z sinboloekin



**Inmobiliaria
ETORRI**

11.000.000 € - 12.000.000 €
100 m² - 120 m²
3 dormitorios - 2 baños
Situado en zona residencial

www.etorri.com



**Inmobiliaria
bilbao**

11.000.000 € - 12.000.000 €
100 m² - 120 m²
3 dormitorios - 2 baños
Situado en zona residencial

www.bilbao.com



Automóviles de Alquiler

11.000.000 € - 12.000.000 €
100 m² - 120 m²
3 dormitorios - 2 baños
Situado en zona residencial

www.automoviles.com

Korsikan be, bero!

Abuztuak 3: azkenean oporretan goaz. Helmuga, Korsika. Bidaia hasi dugu topera kargatuta daroagun alokairuzko furgonetan. Bost lagunon abenturarako gogoak - filmetako mailara ezin heldurik- 15 egunetako epean erre egin behar (beranduago konturatu ginen erreta baino kiskalita amaituko genuela). Euskal Herriko lurak atzean utzi eta Frantziakoak ikusi bezain pronto basamortuko erromesaldia-

gaz topo: errepide-zuzen kilometrikoak, milaka erromes, tenperaturak gorenean eta konturatu orduko... punba!, bidesari bat, eta... aiba!, beste bat, ta... ostia!, beste bat! Astunak gero "bon jur" hauek!

Egunean bertan, gaeuz, Nizara heldu gara: itsasoa ikusteak freskagarri bihurtu zaigu. Ferryan lekua topatzeko arazotxo- ren bat pasa ondoren Riviera dotore eta

turistikatua ezagutu dugu. Ondorioa: irla- ra joan gura dugu lehenbailehen.

Ferryarekin apur bat flipatu ostean Bastiara, korsikar hiriburura, heldu gara. Irla itsasotik ederra bada, bertan ederra- goa: hurrengo hamahiru egunetan bero itzela egin arren (udako beroaldi historikoa bete-betean ezagutu gendun) kanpinetan, hondartzan eta baita barrualdeko klima epel eta goxoan ere, primeran moldatu gara. Guk iparreko lurak ezagutu ditugu bakarrik: Bastia, Macinaggio, Capi Corsu, Centuri eta Calvi kostaldean, eta Corti barrualde menditsuan (korsiarrek indepen- dentzia lortu zutenean hiriburu izan zena). Alde honetako mendiak eta parajeak zinez ikusgarriak dira; harrigarria hain irla txikian halako kontrastea aurkitzea. Eta gainera korsiarrek (ba omen duten euskaldunen antza) ederto moldatu gara eta giro aparta bizi izan dugula aitortu behar dizuegu.

Penaturik, alde egitea tokatu zaigu abuztuaren 18an. Zorionez irla erdia ikus- teko daukagunez, berriz bisitatuko dugu- naren esperantza eta desioa bueltarako motxilan kargatu dugu... bertako edari eta jaki sorta ederragaz batera, noski!

Testua eta argazkia: Eunate, Ekaitz, Alaitz, Arkaitz eta Iosu



Calvin ferrya hartuta, Nizara itzuli ginen eta handik Euskal Herrira

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzar- rik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atsedean hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzaile eta automasajeko koltxo- netak.

Aurreko galderaren erantzuna: 32 bikotek hartuko dute parte Lezamako eskualdeko pilota txapelketan

Irabazlea: Jesus M^a Elozegi



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Nork eman zuen Jorge Oteizari buruzko hitzaldia Sondikan?

Bidali erantzunak (zuen telefonoare- kin), azaroaren 15a baino lehenago, pos- taz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektro- nikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Berenjena beteak

Osagaiak (4 lagunentzat)

4 berenjena
Kinpula bat
Tomate bi
4 piper berde txiki
200 gr okela pikatu
Uruna
Esnea
Oliba olio
Gatza

Prestatzeko era

Erdibitu berenjenea luzetara eta hutsitu. Ipini sartenean kinpulea, piperra, tomate eta berenjenearen okelea dana txikituta, eta 15 minutuan egiten dagoenean bota okela pikatua eta gatz apur bat eta hau guztia euki beste 20 bat minutuan. Bota koilarakada bi urun eta esnea masa lodi bat lortu arte. Bete berenjenak masa horregaz eta gratinau laban, gatzai rallatua ganera botata.



Mari Tere Onaindia

Arroz krematsua galeper eta onddoekin

Osagaiak

300 gr. arroz
4 galeper
200 gr. onddo
kipula bat
2 zati baratxuri
perrexila
azenario bat
edalontzi bete ardo txuri
olioa
gatza
irina

Prestatzeko era

Gatz-piperztatu eta irinetik pasatu ondoren, galeperrak sueztituko ditugu kazola batean. Gero, barazkiak bota eta erregosiko ditugu su epelean. Galeperrak ondo egosita daudela ziur egoteko, ziztatuta egingo ditugu. Era berean, onddoak erregosi eta gorde egingo ditugu.

Beste alde batetik, arroz krematsua prestatuko dugu. Galeperren saltsa irazi eta arrozari botako diogu, baita galeperrak eta onddoak ere.



Balgerri jatetxea Zamudion.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Estatua baten historia"

Hasier Etxeberria

Euri Meuri meteorologoak telebistan lan egiten dau, eta arazo larri bat sortzen da. Negua ez da amaitzen, eta ekainean oraindik udaberria heldu barik dago.

"Izozmendi"

Juan Ramon Madariaga

Idazle, irakasle eta mendizale bilbotarraren poema liburua.

DISKOAK

"Dinbi Danba"

2000. urtean Donostian sortutako talde honen ezaugarria inprobisazioa da.

Jazz-rock estiloko musika instrumentala egiten dau.

"Unwired"





Musika akustikoz osatutako bilduma. Erritmo guztiak jorratuz, herrien musika tradizioei garantiza ematen jake.

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Gutxi bisitatutako lekuak dira, baina egun hauetan hainbat eta hainbat igaroko da ate horietatik, gure artetik joandakoak gogoratzeko eta loreak eskaintzeko.

Inoiz ez diezu erreparatu? Aspaldion ez zara hortik sartu? Ba hementxe dituzu Txorierriko kanposantuetako ateak.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

LEZAMA 3


SONDIKA 4

ERANDIO 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaizak: A6, B4, C7, D3, E5, F1, G2



Antzerkia eta filmak

Sondika

En tu onda, Portal 71 taldearen esku-
tik. Azaroak 21, 19:30etan, Jubilatuen
etxean.

*Doraemon eta hego itsasoetako
piratak*, azaroak 8; *Superagente cody
banks*, azaroak 14; *Pocahontas II*, azaroak
21; *Bionicle*, azaroak 28. Guztiak,
19:30etan, dorretxean.

Txotxongilo antzerkia: *Euskal Herriko
Itsasoa*, azaroak 8, 13:00etan; *Babazal
magikoak*, azaroak 15, 17:30etan; *Baleak
salba ditzagun*, azaroak 22, 17:30etan;
Kutxoren pantomiman, azaroak 29,
17:30etan. Guztiak dorretxean.

La cebra enamorada, Oliver
Producciones taldearen eskutik. Azaroak
29, 19:30etan, dorretxean.

Lezama

El show de Javier Mañón. Azaroak
14, 19:30etan, Kultur Aretoan. 15 urtetik
gorakoentzat.



Azokak

Sondika

Nekazaritza, Abeltzaintza eta
Eskulangintzako VII. Azoka. Azaroak 9.

Zamudio

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako
XIX. Azoka. Azaroak 2.

Erakusketak

Sondika

Jagoba Alvarez Martinen argazkien
erakusketa. Azaroak 3-14, Liburutegiko
erakusketa gelan.

Sondika-Goiri Argazkilari Elkartearen
argazkien erakusketa. Azaroak 17 eta 18,
Liburutegiko erakusketa gelan.

Zamudio

Lehiaketako jai kartelak eta logoti-
poak. Urriak 30-Azaroak 15, dorretxean.

Musika erakusketa. Azaroak 17-22,
dorretxean.

Hitzaldiak

Lezama

*Transgenikoak. Osasuna eta inguru-
girorako kaltegarriak?* Mario Fernandez
medikuarekin. Azaroak, 18, 18:00etan,
kultur aretoan.

Ikastaroak

Zamudio

Txakolinaren kultur gela. Azaroak 17
eta 19, 18:00etatik 22:00ak arte, dorre-
txean. Ikastaro bakoitza egun batean
egingo da. Ikastaro bakoitzeko prezioa: 2
euro.

Lezama

Gabonetako sukaldaritza ikastaroa.
Azaroak 25 eta abenduak 2 eta 9,
20:00etatik 22:00etara. Liburutegian
eman behar da izena, azaroaren 3tik 17ra
arte

Irteerak

Sondika

Argazkiak egiteko irteera
Valderejoko natur parkera. Azaroak
30. Udalak eta Sondika-Goiri Argazkilari
Elkarteak antolatuta. Informazio gehia-
go nahi izanez gero, galdetu
Udaletxean.

Lezama

Erreka eguna. Azaroak 16. Irteera
11:00etan izango da Udaletxeko plazatik.
Erreka garbitu ondoren, hamaiketako.
Galdetu liburutegian.

Jaiak

Sondika

San Martin. Azaroak 11. Meza, San
Martin elizan, goizeko 11:30etan.
Goraintzaileak dantza taldea eta Sabier
Trikitixa taldeek saioak eskainiko dituzte.

Zamudio

San Martin. Azaroak 7-12.
Euskararen eguna Txorierrin. Azaroak
29, egun guztirako ekintzak. Abenduak 3,
umeentzako ekintzak, eskolekin batera.

Kirola

Sondika

Pilota jaialdia. Azaroak 7, 22:30etan,
Goronda Beko kiroldegian.

Lehiaketak

Txorierrin

VI. Ipuin Lehiaketa. Txorierrin
Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak
antolatuta. Aurkezteko epea azaroaren
28an amaituko da.

Sondika

Gabonetako Postalen XII. Lehiaketa.
Oinarriak azaroaren 11tik aurrera eskuratu
ahal izango dira Udaletxean edo liburute-
gian.

Lezama

Gabonetako Postalen V. Lehiaketa.
Aurkezteko epea azaroaren 27an amaitu-
ko da. Argibideak liburutegian.

Umeentzako ekitaldiak

Sondika

Natatxa, Txalo produkzioak taldearen
esku-
tik. Umeentzako antzerkia. Azaroak
28, 18:00etan Goronda Beko kiroldegian.

Lezama

Buhamiak, ipuin kontalaria. Azaroak
14, 19:30etan, liburutegian. 5-10 urte
bitartekoentzat.

Non dago trukoa?, Gari, Montxo eta
Jose Lontxo pailazoekin. Azaroak 30,
18:00etan, pilotalekuan.



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

atera gorria!



bbk=

www.bbkk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila